



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abagune 'egokiera, aukera'	«—Pantera arrosarik nahi duzu? —erantsi zuen berehala, detektibeari kexa agertzeko abagunerik eman gabe.»	(127)
agerian egon 'ezagun izan'	«—Gaspar, gizon tematia zara, agerian dago , eta ez nuke nahi zuk ezer egitea gogoz kontra...»	(9)
aitaren baten 'ikusi ez-ikusi, atoa'	«Korrikalaria zuhaixka batzuen artetik sartu eta aitaren baten desagertu zen denen begi bistatik»	(37)
akordura etorri 'gogoratu, oroitu'	«Porkyri Simonekin izandako azken elkarrizketa etorri zitzaion akordura eta, inork baino arinago erreakzionatuz, korearrari samatik oratu eta...»	(176)
albait 'ahalik eta'	«...nahiz eta hain zalaparta handiaren arrazoa lar ondo ulertu ez, albait arinen urrundu zen Etxebe plaza txikitik.»	(33)
aldamenean 'alboan, ondoan'	«Erdi inguruan idazmahai bat zegoen, eta haren aldamenean zutik berrogeita hamar bat urteko andre tentea...»	(18)
aldarri 'dei ozena'	«Entzun dezala argi gure Jaungoikoak bere herriaren zorian aldarria : ALELUIA!»	(28)
altzo 'sabel ingurua'	«—Amen —esan zuen, buruaz baietz eginez eta altzoan zeukan kapela pixka bat jaso.»	(28)
amarru 'azpikeria, tranpa'	«—Ze amarru da hau? Ez dut ezer ulertzen.»	(155)
amore eman 'etsi, errenditu'	«...harridura mesfidantza bilakatuz joan zen, gero etsimendu, eta azkenean amore eman zuen.»	(87)
antxintxika 'lasterka, korrika'	«...ez zegoen amore emateko prest eta gelan zehar antxintxika hasi zen...»	(61)
arakatu 'zerbaiten bila hasi'	« <i>Gora eta Gora</i> himnoaren doinua aditu zen inguruan. Simonek alboan tolestuta zeukan gabardinaren poltsikoak arakatzeari eman zion...»	(120)
arbuia 'bazter utzi, mesprexatu'	«Azken batean, animalia arbuia horietariko gehienak sakrifikatu egiten dituzte bertan...»	(22)
arrote 'eskean ibiltzen dena,	«Gero pauso lasai batzuk eman zituen aurrera, eta arrote talde batek betetzen zuen jarlekuaren inguruan gelditu zen.»	(25)
arnasari buelta eman 'arnasa normaltasunez hartu'	«Minutu batzuk behar izan zituzten arnasari buelta emateko , eta orduan detektibea zeozertaz oroitu zen, bat-batean...»	(178)
arnasestuka 'arnasa larri hartuz'	«Atoa eman zizkion buelta bi giltzari, eta hormaren kontra ezarri zuen bizkarra, arnasestuka .»	(14)
arrapaladan 'arineketa, ziztu bizian'	«...buzoian jausitako zerbaiten hotsak arrapaladan irtenarazi baitzuen handik.»	(12)
atalase 'maila, altueratxo'	«...halako ez tul txikia egin eta di-da, berarentzat ezinezkoa zirudien salto bizkor batez, klubaren sarrerako atalasea zeharkatu zuen.»	(44)
atoan 'berhala'	« Atoan eman zizkion buelta bi giltzari, eta hormaren kontra ezarri zuen bizkarra, arnasestuka.»	(14)
aurpegiera 'imintzioa, keinua'	«...bere begiradak topo egin zuen higuina eta ikara adierazten zuten mahaikideen aurpegierekin —.»	(48)
aurreragoko lanak 'lehentasuna duten lanak'	«—Etxebe, mesedez, izan zaitez serioa, baditugu aurreragoko lanak eta!»	(39)
aztoraturik 'arduratuta, kezkatuta'	« Aztoraturik sentitzen zen, tabernako ihesaldiagatik baino areago, azken orduetan pilatzen ari zirelako gertaera interesgarriak...»	(122)
babo 'papau, lelo'	«Haien gisako gayak, edo aita gaixo arruntak, edo babo hutsak.»	(46)
begitandu 'iruditu, otu'	«...zigarro puru meheari eusteko moduan halako aristokrata kutsua ematen ziotela begitandu zitzaion bisitariari.»	(18)
behegain 'zorua'	«...harlauza griseko behegaina eta gezurrezko jareku zaharrak besterik ez zeukana.»	(31)




beirate 'beirazko atea'	«Gabarbinaren papar-hegalak goraino igota azaldu zen gizon txikiaren irudia <i>Look</i> pubeko beiratearen aurrean.»	(89)
beitu 'so egizu, begiratu'	«—Ba..., bai, beitu zuk zeuk.»	(12)
betikara 'begi-kliskada, itxi-zabaldu	«Andreak ez zuen betikararik ere egin hitz horiek esatean...»	(22)
bihozkada izan 'premonizioa, sentsazioa izan'	«—Ba... oraindik ez nago ziur, baina bihozkada izan dut lurrean ikustean...»	(75)
biraoa 'madarikazioka, hitz gorriak	«Ijito biak ere sutan paratu eta biraoa eta madarikazioka hasi zitzaizkion.»	(33)
buruan erabili 'asmoren bat, ideia bat mamitu'	«—Ez, hausnartzen nago, beste barik. —Zer darabilzu buruan?»	(184)
destaina 'mespretxua, erdeinua'	«Horretarako kontratatu nuen detektibe bat –destainazko begirada bota zion Artaberi–, baita ordainsaria eskaini ere.»	(162)
di-da 'keinu arina'	«...halako ez tul txikia egin eta di-da , berarentzat ezinezkoa zirudien salto bizkor batez, klubaren sarrerako atalasea zeharkatu zuen.»	(44)
emango nuke 'apustu egingo nuke'	«— Emango nuke –esan zuen Simonek, ziurtasuna adierazten zuen ahoskeraz– Manila-n aurki daitekeela erantzunen bat...»	(132)
erabakitsu 'ziurtasunez, irmotasunez, konfiantzaz'	«Kasianengana hurbildu zen erabakitsu , baina beronek gorputza jiratu eta bizkarra eman zion.»	(61)
erdeinuz 'mespretxuz, gutxiespenez'	«...banan-banan begiraten zien diskotekan sartzen ziren bezero guztiei, goitik behera, erdeinuz bezala, ezpainak estuturik.»	(137)
erronkari 'desafiozkoa'	«Detektibeak ez zien erantzun mespretxuzko hitzei, ezta begirada erronkariari ere.»	(153)
ezagun izan 'nabaria izan, begi-bistakoa'	« Ezagun duzu goi mailako detektibea zarena –esan zuen isekaz potoloak–.»	(45)
ezgauza 'balio ez duena, inutila'	«—Gogor tratatu behar dira labezomorroak –azken kaskasoilak seinlatu zituen begiradaz–, erruki barik. Beitu ze ezgauza diren orain...»	(142)
ezuste 'ustekabea'	«Elkarri begiratu zioten Kasian eta Dorinek, ezusteak sustaturik, eta azken hau joan zen kutxa berriro irekitzera.»	(13)
gako-hitza 'klabe-hitza, ezkutuko esanahiduna'	«Profesional onak dira eta ohituta daude gako-hitzeekin funtzionatzen. Diruditen baino azkarragoak dira...»	(94)
galapan 'korrika, arrapaladan, arineketa'	«Duela gutxi lapur bat ikusi dut kalea galapan zeharkatzen, kaiola bat besapean eta loro berritsua honen barruan.»	(79)
gandor 'oilarren gangarra / ileetatik'	«Beronek gandorretik helduta zeukan morroi bat, baina kolpeak jo, aireari baino ez zizkion jotzen. Jaso, ostera, ugari, alde guztietatik.»	(141)
gora eta gora 'EAJko nazionalisten kantua'	« Gora eta Gora himnoaren doinua aditu zen inguruan. Simonek alboan tolestuta zeukan gabardinaren poltsikoak arakatzeari eman zion...»	(120)
gosekil 'ezer ez daukan gizakia'	«—Hara bestea! Nahiko zenuke zuk askotan suertatzea nire gisako pagotxak parean, eta ez azal-beltz gosekilak! »	(50)
halandaze 'hortaz, bada, horrela'	«Gainera, esan didatenez, Etxeberria ijito abizena da, halandaze... »	(37)
harpa jotzea 'adar jotzea, txantxa'	«Edonola ere, haiek ez ziren jabetu latinoek zerabilten harpa jotzeaz , eta apurka-apurka amaierara iritsi ziren...»	(40)
harraska 'harria, platerak-eta garbitzekoa'	«Telebistaz, mahaiatz eta sofaz gain ezer gutxi zegoen gela narras hartan (...) tresna zikinez betetako harraska alboan, eta zenbait janari poltsa...»	(11)
hausnartu 'gogoeta egin'	«Pixka baten hausnartu zuen, kokospeko ileei tiraka...»	(25)
herdoildu 'ugertu'	«Horixe zioen atari alboko letrero herdoilduak. »	(25)




hogeita hamataka 'hogeit baino gehiago'	« Hogeita hamataka urte izango zituen, baina askoz gehiago balitu bezala jokatzeko zuten neskarekiko.»	(17)
igual 'agian, baliteke, beharbada'	«—Hori ere egia da. Igual labor geratu nintzen —pentsatzen geratu zen burusoila—.»	(105)
irrika 'gogo bizia, zozertarako nahia'	«—Jakin nahi nuke, bai —erantzun zuten Etxebek, irrika handirik gabe, bere edalontziko oliba ahoratu bitartean.»	(111)
isekaz 'burlaz, trufatuz, ihakinduz'	«Ezagun duzu goi mailako detektibea zarena —esan zuten isekaz potoloak—.»	(45)
jabetu 'ohartu, konturatu'	«Edonola ere, haiek ez ziren jabetu latinoek zerabilten harpa jotzeaz, eta apurka-apurka amaierara iritsi ziren...»	(40)
jakingura 'jakin-mina, irrika'	«—Dena dela, zer nagusi? —galdetu zuten Etxebek, jakinguraz .»	(133)
jaso 'hartu'	«Beronek gandorretik helduta zeukan morroi bat, baina kolpeak jo, aireari baino ez zizkion jotzen. Jaso , ostera, ugari, alde guztietatik.»	(141)
jaurti 'indarrez bota, jaurtiki'	«...ireki egin zuten atea eta Kasianek, piztiarik beldurgarriena ere ikaratuko lukeen orroa eginez, jaurti egin zuten usoa gelaxka ilunaren barrualdera.»	(15)
jazo 'gertatu, agitu'	«—Betiko gauzak baino ez dira jazo .»	(139)
jendilaje 'jendaila, jende txarra'	«...pixka bat gehiago hausnartu beharko duzu esaten duzuna, jendilaje horren aurrean ezin baita edozer aipatu...»	(84)
joaldi 'laru jotzea, txortaldia'	«Eta zertan aritu zara hor barruan ijito, mairu eta txinatarren artean? —Noren artean? Ni joaldi bizkor eta osasuntsua egitera etorri naiz hona, beste barik.»	(92)
kananarru 'ipotxa, gizaki txikitxo'	«— Kananarru , egin salto! —esan zuten gero Mustafak.»	(171)
kankailu 'gizontzarra, fineziarik ez duena'	«Laguntzailea ere badauka, are leloagoa dirudiena, baina kankailu ederra da eta beharbada...»	(97)
kanpaia jo 'masturbatu'	«—Zenbat aldiz esan behar dizut zeure etxera joateko kanpaia jotzera , buruhandi hori!»	(32)
kapela 'sonbreirua'	«—Amen —esan zuten, buruaz baietz eginez eta altzoan zeukan kapela pixka bat jasoz.»	(28)
karraju 'pasiloa'	«Ateondo txikitik abiatzen zen karraju laburraren amaieran, areto nagusian, ahotsak aditzen ziren...»	(151)
kaskasoil 'ile gabea'	«—Gogor tratatu behar dira labezomorroak —azken kaskasoilak seinalatu zituen begiradaz—, erruki barik. Beitu ze ezgauza diren orain...»	(142)
kikilkeria 'beldurra'	«...astiro eta hitzak ondo ahoskatuz, gelakidearen aurpegieran kikilkeria islatzen hasten zela sumatuz.»	(58)
kilikagarri 'arreta deitzekoa'	«—Gutxi gorabehera. Keinu kilikagarri bat edo beste egin dit, baina nik argi daukat berarekin erlazio profesionala baino ez dudala nahi.»	(73)
kirrinkari 'hots desatsegina'	«...pasabide luzeak, ate kirrinkariak , gela handi eta bakartiak, antzinako altzariak...»	(73)
kopetiledun 'bekokian ere iletsua'	«...esan zuten azkenean kopetiledunak .»	(11)
kuluxka 'loalditxo'	«—Ni ez. Tira, kuluxka txikitxo bai egin dudala.»	(119)
labezomorro '(cucaracha)'	«—Gogor tratatu behar dira labezomorroak —azken kaskasoilak seinalatu zituen begiradaz—, erruki barik. Beitu ze ezgauza diren orain...»	(142)
lañotasunez 'apaltasunez, mesfidantza barik'	« Lañotasunez begiratu zion atezainak detektibeari...»	(141)
lar ondo 'oso ondo'	«...nahiz eta hain zalaparta handiaren arrazoia lar ondo ulertu ez, albait arinen urrundu zen Etxebe plaza txikitik.»	(33)



litxarrerria 'gauza txikiak eta askotarikoak'	«—Orain ezin dugu, litxarrerria -denda itxita baitago laurak arte...»	(116)
mailatu 'kolpatua, txapa okertua'	«Telefonoa diru barik, kotxea mailatuta eta depositoa hutsik, eta gorputza kolpatuta; horrelaxe amaitu dut.»	(180)
makina bat 'pilo bat, hainbat'	«...bazter guztietan jattetxeak irekitzen utzi dizuegu, makina bat udaberri-biribilki janez mantendu zaituztegu, zintzotasunez jokatu dugu zuekin...»	(158)
mamala 'lela, tontola'	«—Beckham-ek —esan zuen andrazko batek. —Ez, mamala , Ronaldinho izan da —erantzun zion gizonezko batek.»	(68)
mamorro 'bitxoia	«Dena dela, kontuz ibili mamorroarekin . Jakin dugunez, oso arriskutsua da...»	(12)
maratila 'atearen txaramela, irekitzeko gailua	«...ezkerreko aterantz hurbildu, giltzari buelta bi eman tentu handiz, maratilar heldu, eta Dorinen keinuaren zain geratu zen.»	(14)
marmarrean 'txutxu-mutxuka, ahapeka berbaz'	«Gizon burusoila sofatik jaiki eta telebista zaharra itzali egin zuen marmarrean . Gero besoak luzatu eta nagiak atera zituen...»	(9)
mehaka 'aldaka, gerri aldea'	«...esku banarekin atximurka egin zien mehakako haragi oparoetan, beragandik pixka bat aldendu zitezten—.»	(45)
melapela 'bost axola, ardurarik ez'	«Niri melapela zeinekin geratu.»	(48)
melatu 'beroaren beroaz egosi, idortu, kargatu, jasanezin egin'	«—Joder! —esan zuen umore txarrez, elastikoaren tirantei tiraka, leihorik gabeko gela melatzen zuen sargoritik ihes egin ezinik—.»	(10)
morroi 'morroskoa, tipoa'	«—Eztabaida bat izan du morroi batekin —aurreratu zen Artabe—. Beronek zantzu batzuk baino ez dauzka. Bestea ikusiko bazenu, berriz!»	(134)
motots 'ile bildua, "moñoa"	«...eta mototsean bilduta zeukan ile hori tindatua.»	(18)
muin egin 'musu emateko keinu leuna'	«...Pilarren eskua hartu eta muin egin zion...»	(19)
mutxurdin 'neskazarra, adinekoa eta ezkongabea'	«Izan ere, jarraian mutxurdinari deitu diot, nire senak bultzaturik, eta badakizu zer esan didan?»	(112)
nagiak atera 'logura kentzeko besoak mugitzea'	«Gizon burusoila sofatik jaiki eta telebista zaharra itzali egin zuen marmarrean. Gero besoak luzatu eta nagiak atera zituen...»	(10)
nagikeria 'alferkerian, eze egin gabe'	« Nagikerian bizi dira hemen, gobernuak ematen dien diru-laguntzaren kontura.»	(36)
narras 'aldrebestua, hondatua'	«Telebistaz, mahaiaz eta sofaz gain ezer gutxi zegoen gela narras hartan (...) tresna zikinez betetako harraska alboan, eta zenbait janari poltsa...»	(11)
nora ezean 'jitoan, nora jakin gabe'	«Zutitu eta espazio txikian nora ezean mugitzen hasi zen, purrustaka, burua berotzen ari zitzaion seinale.»	(102)
nozitu 'jasan, sufritu'	«Begiratu zertzuk nozitu ditugun aspaldi honetan bere erruagatik.»	(183)
ño 'harridura adierazteko hitza'	«—Niri ere bai? Ño , hau da nahastea! Hemen zerbait oso susmagarria dago...»	(91)
orro 'oihu lazgarria'	«...ireki egin zuen atea eta Kasianek, piztiarik beldurgarriena ere ikaratuko lukeen orroa eginez, jaurti egin zuen usoa gelaxka ilunaren barrualdera.»	(15)
osteratxo 'ibilalditxo, bueltatxo'	«Badakizu gutxien espero zitezkeen pertsonak ere pasatzen zirela nire lehengo lantokitik osteratxo bat egiten.»	(143)
pagotxa 'zorte ona'	«—Hara bestea! Nahiko zenuke zuk askotan suertatzea nire gisako pagotxak parean, eta ez azal-beltz gosekilak!»	(50)
pantera arrosa 'krema arrosazko opiltxoia'	«— Pantera arrosarik nahi duzu? —erantsi zuen berehala, detektibeari kexa agertzeko abagunerik eman gabe.»	(127)
papar-hegal 'idun aldeko arropa ertzak'	«Gabarbinaren papar-hegalak goraino igota azaldu zen gizon txikiaren irudia <i>Look</i> pubeko beiratearen aurrean.»	(89)



paratu 'jarri'	«Ijito biak ere sutan paratu eta biraoka eta madarikazioka hasi zitzaizkion.»	(33)
patriarka 'ijitoen artean, nagusia'	«—Nahi duzun bezala —berriro patriarkak —.»	(83)
patu 'zoria'	«—Kabrrrrroia! Kabrrrrroia! —errepikatzen zuen loroak aldi oro kutxa barrutik, bere patua zein zen sumatuz agian.»	(106)
pikuak 'letxe bat!, kaka zaharra!'	«—Zorionekoa zara, ezta, neskatxa? (...) —Zorionekoa bai, pikuak! »	(49)
piperra egin 'huts egin, faltatu'	«— <i>Mertxero</i> , piperra egin duzu gaurko zeremoniara!»	(83)
poxpolin 'neska polita'	«—Deituidazu Simon, poxpolina , Si-mon —xuxurlatu zuen haren albotik pasatzean, begi bat itxiz.»	(18)
pozarren 'poz-pozik, bozkarioz beterik'	«—Eta orain kanta diezaiozun pozarren gure Jaunari!»	(29)
prefosta 'noski, jakina!'	«— Prefosta , Etxebe, prefosta! —tiranteak askatu, jarrera erlaxatu eta kidearengandik urruntrzen hasi zen.»	(41)
purrustada 'protesta keinua'	«Idazkariak purrustada txiki bat egin zuen, baina ez zion irribarre txatxuko gizonari erantzun.»	(18)
purrustaka 'purrustadak eginez, haserre'	«Zutitu eta espazio txikian nora ezean mugitzen hasi zen, purrustaka , burua berotzen ari zitzaion seinale.»	(102)
sargori 'sapa, bero itogarria'	«—Joder! —esan zuen umore txarrez, elastikoaren tiranteei tiraka, leihorik gabeko gela melatzen zuen sargoritik ihes egin ezinik—.»	(10)
selapela 'bost axola, ez dio lebarik'	«Orduan honi selapela gu denok pozoiturik akabatzea!»	(158)
sena 'instintoa'	«Izan ere, jarraian mutxurdinari deitu diot, nire senak bultzaturik, eta badakizu zer esan didan?»	(112)
sumatu 'igarri, antzeman, nabaritu'	«—Kabrrrrroia! Kabrrrrroia! —errepikatzen zuen loroak aldi oro kutxa barrutik, bere patua zein zen sumatuz agian.»	(106)
sustatu 'ikaratu, beldurtu'	«Elkarri begiratu zioten Kasian eta Dorinek, ezusteak sustaturik , eta azken hau joan zen kutxa berriro irekitzera.»	(13)
talaian 'erne'	«—Espero dut ez egotea talaian . Bestela, hortik ateratzen bada akabo, ez dugu ihesbiderik, ez dugu astirik izango tranpola irekitzeko.»	(15)
temati 'egoskorra'	«—Gaspar, gizon tematia zara, agerian dago, eta ez nuke nahi zuk ezer egitea gogoz kontra...»	(9)
tente 'hazkorra, tentea'	«Erdi inguruan idazmahai bat zegoen, eta haren aldamenean zutik berrogeita hamar bat urteko andre tentea ...»	(18)
tentu handiz 'kontu handiz'	«...ezkerreko aterantz hurbildu, giltzari buelta bi eman tentu handiz , maratilari heldu, eta Dorinen keinuaren zain geratu zen.»	(14)
tranpola 'sabaiko atexka, ohol handia'	«—Espero dut ez egotea talaian. Bestela, hortik ateratzen bada akabo, ez dugu ihesbiderik, ez dugu astirik izango tranpola irekitzeko.»	(15)
txatxu 'leloa, memeloa, mozoloa'	«Idazkariak purrustada txiki bat egin zuen, baina ez zion irribarre txatxuko gizonari erantzun.»	(18)
txizerreka 'txizaldia'	«—Eta txizerreka botatzean ez zara inoiz batere ziprztintzen, ezta?»	(58)
txortaldi 'txortan egin, amodioa egin'	«Ziur txortaldi batzuekin konponduko litzatekeela, baina...»	(73)
txundigarri 'harrigarria'	«— Txundigarria , zenbat zoro dagoen munduan!»	(71)
txutxu-mutxuka 'esamesaka, marmarrean'	«Oraindik txutxu-mutxuka jarduteko gogoz? Harrituta zeozergatik? Ihes egiteko planen bat prestatzen?»	(152)



udaberri-biribilki '(rollito de primavera)'	«...bazter guztietan jatetxeak irekitzen utzi dizuegu, makina bat udaberri-biribilki janez mantendu zaituztegu, zintzotasunez jokatu dugu zuekin...»	(158)
xarma 'erakargarritasuna'	«...gehienbat klubetan lekurik ez zeukatenek, zaharregiak edo batere xarmarik gabeak izateagatik.»	(43)
xuxurlatu 'ahapeka esan'	«—Deituidazu Simon, poxpolina, Si-mon — xuxurlatu zuen haren albotik pasatzean, begi bat itxiz.»	(18)
zakarkeria 'gogor, leuntasun barik'	«—Zaude isilik, buruhandi! —moztu zuen detektibeak zakarkeriaz —.»	(37)
zantzu 'arrastoa, marka'	«—Eztabaida bat izan du morroi batekin —aurreratu zen Artabe—. Beronek zantzu batzuk baino ez dauzka. Bestea ikusiko bazenu, berriz!»	(134)
zentzumen 'ikusteko, entzuteko... gaitasuna'	«—Izan zentzumenak erne —erantsi zuen Artabek eta eskua eman zion gorilari agur gisa.»	(78)
zerritona 'emagalduta, likitsa'	«Hori da larru gogorra! Nahi lukete bertako zerritonek kafetegi baten lan egin.»	(36)
zirkin 'mugimendu txikia'	«Edonola ere, detektibeak ez zuen zirkinik egin laguna defendatzera joateko...»	(123)
zizpuru 'suspiria'	«—Badirudi zaindarien haserrarazi dutela Betty, ezta, Petrus? —esan zuen Pilarrek, zizpuru eginez—.»	(170)
ziztrin 'ezdeusa, eskasa, purtzila'	«—Betaurrekoak apurtu dizkit txinatar ziztrin horrek!»	(172)
zoli 'indartsua, bizia'	«...ustekabea, giroa erabat hondatu zuen doinu zolia entzun baitzen aretoan.»	(29)